



Euskararen Gaitasun Agiria

EGA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA ETA KULTURA SAILA

C1

Proba idatzia | Bigarren atala



2013
martxoak 9



Azterketa-kodea

Anonimotasuna babesteko

Idatzi azterketa-kodearen zenbakiak:


--	--	--	--	--	--	--	--

Idazmena

Idazlan luzea

Idazlan laburra


Esaldiak berridaztea



- **BIGARREN ATAL** HAU egiteko denbora, gehienez: **ordubete eta 50 min.**
- Barruan **lau orri solte** daukazazu.
- Idatz itzazu kodeak adierazitako laukietan. Guztira, bederatzi dira. Kode gabeko orrialdeak ez dira zuzenduko.
- Hurrengo laukian, ariketak, puntuazioak eta denbora-banaketa.

PROBA IDATZIA		Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez	Proposatutako denbora	
1. atala	Elkarriketa-testua	5	—	10 min	65 min
	Lexikoa	5	—	10 min	
	Irakurmena	10	—	40 min	
	Erantzun-orria betetzeko			5 min	
2. atala	Iritzi-artikulua	10	10	40 min	110 min
	Idazkia	10		30 min	
	Esaldiak berridaztea	10	—	25 min	
	Egindakoa gainbegiratzeko			15 min	
Guztira		50	27	2h 55 m	


IDAZLAN LUZEA ETA LABURRA | Ohar orokorrak |



1. Bina gai dituzu aukeran. **Bakoitzean bat hartu** behar duzu eta garatu.
2. Ebaluatzean, honakoak izango dira ardatz:
 - Atazaren zehaztasunak betetzea (laukietan adierazitakoak)
 - Hizkuntz aberastasuna / egokitasuna / zuzentasuna
1. Baliogabetu egingo dira pasarte eginak (sarrera, amaiera edo lerrokada aurrez prestatuak, orokorrak), gaiarekin edota agindutakoarekin (enuntziatua) lotura zuzenik eta argirik ez dutenak.
1. Oharra: anonimotasuna babesteko, idazlanetan ez ipini zure benetako daturik (izen-deiturak, helbidea...)

IDAZLAN LUZEA | Iritzi-artikulua | Argibideak |

Hartzen duzun gaia garatzeko iritzi-askatasuna duzu. Baina, beti ere, jokatu begirunez: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak, erlijioen aurkakoak...



Atazaren zehaztasunak → Bete beharrekoak ○


NORI ZUZENDUA Informazio aldizkari bateko irakurleei
 TESTU MOTA Iritzi artikulua
 MOLDEA Euskara batua
 HITZ KOPURUA **Gutxienez 250 hitz** (tintaz)

TESTUAK IZAN BEHAR DITUEN OSAGIAK:

- Gaiaren **sarrera** edo aurkezpena.
- Dosierrean, **GIDOIRAKO** laukian proposatutako **idea batzuk**. Horiek osatu, konparatu, erlazionatu...
- **Adibideak**, garatu dituzun argudioak edo ideiak osatzeko.
- Amaitzeko, aukeran:
 1. **konklusioa**, garrantzizkoena laburtzeko
 2. **proposamena**, arazoa hobetzeko

IDAZLAN LABURRA | Gutuna edo gogoeta | Argibideak |

Moldea, aukeran, hartzailearen arabera: batua / euskalkia* / hika* / berorika*
 ***Maila jasoan. EZ** lagunarteko "hizkeran bezala" (fonetismoak, hitzen kontrakzioak...). Eta ortografia zuzena.




Atazaren zehaztasunak → Bete beharrekoak ○

NORI ZUZENDUA Ezezagun bati / adiskide bati / norbere buruari
 TESTU MOTA Gutuna / mezua / txosten laburra / gogoeta / kronika
 MOLDEA Euskara batua / euskalkia* / hika* / berorika*
 *Aukeran, hartzailearen arabera, beti ere maila jasoan
 HITZ-KOPURUA **Gutxienez 150 hitz** (tintaz)

TESTUAK IZAN BEHAR DITUEN OSAGIAK:

- **Agindutakoari** erantzuna / **oinaren** jarraipena
- Testuingurua kontuan harturik, **egilearen ikuspuntua**
- **Molde sinesgarria**: pertsonala, tonu egokia...
- **Amaiera** egokia

Orrialde honetako lerro hauek zirriborro gisa erabil ditzakezu: gidoia egiteko, zure apunteak biltzeko...



Lerro horietan idatzitakoa ez da zuzenduko.

Zirriborroetarako lerroak

Handwritten text: Zirriborroa

Zirriborroetarako lerroak

Handwritten text: Zirriborroa



GAIA

Gazteen lokalak

Gidoirako

- Aisialdirako aukera berria: musika, kirola, harremanak ...
- Ardurak hartu eta etxetik kanpora bizitzen ikasi
- Lagun taldea indartu, lanak partekatu
- Auzolana, autogestioa, askatasuna, erantzukizuna...
- Leku epela eta goxoa
- Bigarren etxea... gurasorik gabe
- Txoko ezkutatuak eta ilunak
- Arazo iturri: zarata, zikinkeria, istiluak auzokoekin...
- Arriskuak: suteak, istripuak...eta legearen mugan
- Ghettoak: herriko beste gazteekin, familiarekin... harremanik ez
- Araurik ez, kaos ikaragarria.
- Alokairu garestia

Gernika: udal araudia

- 1 Komuna
- 2 Alkoholik ez
- 3 Ordutegia: 10:30ean itxi; asteburuan, 00:30ean
- 4 Erregairik ez, berogailurako baino ez
- 5 Garbitasuna
- 6 Gazte kopuru mugatua



Heltzen laguntzeko bidea



Ospe txarra: suteak...eta kexu ugari

"Sua piztu eta auzokoek lokaletik atera dituzte" (2011-08-25)

"Mozkorrak, musika danba-danba"

"Gauero, istiluak etxe pean"

"Elorri gazte bat hil lokalean, ustez kea arnastuta"



Gazteen bizimodua, erabat aldatu





Gobernuz Kanpoko Erakundeak

Gidoirako

- Arloak: osasuna, hezkuntza, garapena, giza eskubideak, ekologia...
- Demokrazian, giza eskubideen alde eta bidegabekeriaren aurka, ohiko alderdien eta gobernuen lana
- Gobernuetatik kanpoko taldeak: hainbat boluntario
- Herri aberatsen kontzientzia iluna garbitzeko egokia
- Herrialde Hirugarren garatuetatik Munduari
- Dirulaguntza onartuta, GKEak gobernuarekin zorretan
- Alderdiak eta erakundeak iritsi ez eta... herrigintzarako molde berria
- Ikuskizuna: ospetsuak kanpainetan

GKE batzuk

GKE	esparrua	ardurak
Amnesty International	giza eskubideak	tortura, heriotz zigorra
Greenpeace	ekologia	gehiegizko arrantza, energia nuklearra
Mugarik gabeko medikuak	laguntza medikoa	gatazketako biktimak
Oxfam	garapena, laguntza soziala	pobrezia, bidezko merkataritzak
Sos arrazakeria	giza eskubideak	atzeritarren bazterzea





Gutuna Klase partikularrak

Egoera:

Iragarkia herriko dendan: Ingeleseko eskolak emateko pertsona bat behar dela irakurri duzu, eta zeure burua eskaintzea erabaki duzu.

PERTSONA BAT BEHAR DA 11-12 URTEKO IKASLE BATI KLASE PARTIKULARRAK EMATEKO.

ESKOLAK INGELESA LANTZEKO IZANGO DIRA.

BEHARREZKO DA INGELESEZ ONGI JAKITEA, ESKARMENTUA, SERIOTASUNA ETA IKASGAIA MODU ENTRETENIGARRIAN EMATEA.

IRAILEAN HASTEKO, ASTEAN 3 ORDU, ARRATSALDEZ. KLASEAK IKASLEAREN ETXEAN IZANGO DIRA. ONGI ORDAINDUKO DA.

Interesatuak helbide honetara idatzi: Dato kalea 2, 3., ezk. Gasteiz

INGELESEKO ESKOLAK EMATEKO ZEURE BURUA ESKAINTZEKO GUTUNA

Nork: zuk, zeuk


Nola: posta elektronikoz edo postaz

Zer: zeure burua eskaintzeko gutuna

Nori zuzendua: LMH 6. mailako ikasle baten gurasoei

Aintzat hartzekoak: nor zaren, ingeles maila, agiriak, eskarmentua, lan baldintzak..., bukaerako agurra

Hitz-kopurua: gutxienez **150** hitz



Gasteizen, 2013ko.....

Guraso horiek:



Gogoeta *Nola jokatu ote nuke nik?*

Gaia: *Aspaldi ez dela, hara zer ikusi zenuen telebistan:*

"Bilbon 8.000 euro itzuli zituen gazteari esker ona adierazi diote. Bilboko San Frantzisko auzoan 8.000 euro aurkitu eta itzuli egin zituen Abdellah gazte marokoarrak."

Eta egoera hori neuri egokituko balitzait?

Bat-batean horrelako dirutza aurkituko banu, zer egingo ote nuke?

Nori zuzendua: zeure buruari egindako **gogoeta**

Baldintza: Abiapuntua izan dadila ondoko esaldia. Alegia, hori idazten hasi eta horri eman jarraipena.


Hitz-kopurua: gutxienez **150** hitz

Bat-batean sekulako dirutza aurkituko banu





--	--	--	--	--	--	--	--

ESALDIAK BERRIDAZTEA

Ariketa honetako esaldiak beste molde batean ipini behar dira, berridazketa eginez. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:

...takoa $\Rightarrow$ *etorritakoa*

Punturik ez badu, aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dira emandako esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu behar da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**, eta ortografia zuzenarekin. Adibidez:

0. Hasieran errua berari egotzi nion. Horrek lotsa eman zidan gero.

Hasieran bera erruduntzat jo izanak lotsatu *egin ninduen gero*.

1 Etorkizuneko bideak urratzeko, zein izango da zenbait talderen jarrera? Bada, ohiko irtenbide ezagunak hartuko dituzte.

..... *ekiteko,*
 *joko dute.*

2 Lea-Artibai eskualdean ez dago Gailurtegi enpresa baino aurrerakoiagorik. Urteotako eredu berritzaileari esker izan da hori.

..... *bihurtu du*
 *enpresarik*

3 Bazegoen, bai, Fukushima tragedi saihesteko modurik; hau da, zentraleko arduradunek beharrezko neurriak garaiz hartzea.

..... *saihets*
 *ba*

4 Markelen auto berri eta garestiari begiratz gero, berehala konturatuko zara bere bizimodua izugarri aldatu dela.

..... *ez duzu*
 *zenbat*

5 2007an, New Yorkeko burtsa amildu baino lehen, nork ikus zezakeen zer zetorkigun? Gutako inork ez.

..... *gai*
zetorkiguna



--	--	--	--	--	--	--	--

- 6 Sei hilabete barru Erromatik itzuliko zarela jakitea. Horixe izango litzateke nire pozik handiena.

..... *poztuko*

.....*baino*.

- 7 Oztopo handiak izan zituen, baina, hala ere, egitasmo xume hura garaile atera zen bideko gorabehera txiki eta handi guztietan.

..... *oztopo*, *mendean hartu*

.....

- 8 Institutuko garai zoriontsuetan lagunekin arratsaldeko seietan kalean elkartu eta goizaldeko zortzietan etxeratzen ginen. Non dira aspaldiko garai haiek?

Lekutan

..... *zoriontzuak*.

- 9 Nola ikasi behar dituzte seme-alabek oinarrizko gauza horiek? Bada, guraso izatea hautatu duenak du horiek irakasteko ardura.

..... *dagokio*

.....*irakastea*.

- 10 Mediku taldea da kasu ospetsu horren gorabehera nahasi eta ilunak dakizkien bakarra.


..... *baino*

..... *berri*.

AZTERTZAILEAK ERABILTZEKO

Esaldiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Gaizki (O)										
Kalifikazioa (0 - 10)	Oharrak									
.....										

Amaitzen duzunean:



- Konprobatu **kodeak** idatzi dituzula adierazitako laukietan. Guztira, bederatzi dira.
Kode gabeko orrialdeak ez dira zuzenduko.
- **Ordenatu** orri solteak eta sartu koadernotxo honen barruan. Jaso eskua eta adierazi gelako arduradunei azterketa amaitu duzula.

Kalifikatzeko irizpideak

IDAZLAN LUZEA ETA LABURRA

EDUKIA (0-3 puntu). Adierazia, hots, gaia zenbateraino garatu den:

- Gutxieneko hitz-kopurua.
- Gaiaren garapena: argudioak, adibideak.
- Gidoian proposatutako ideiak sakontzea.

MOLDEA (0-3 puntu). Adierazpena, hots, edukia azaltzeko baliabideen kalitatea:

- Egitura aberatsak / sinpleak.
- Lexiko zehatza eta adierazkorra / desegokia edo urria.
- Ideien eta egituren arteko kohesioa, lotura.
- Idazlanaren egituraketa orokorra: sarrera, garapena eta konklusioa.

ZUZENTASUNA (0-4 puntu). Sintaxia, hots, sintaxizko eta ortografiako zuzentasun maila:

- Deklinabide eta aditz mailakoa.
- Perpausen egituraketa.
- Ortografia: hitzen idazkera zuzena eta zeinuen erabilera egokia.

Hiru alderdi horietakoren batean nabarmen huts eginez gero edota, oro har, hiruretan maila kaxkarra erakutsiz gero, ezingo da

Idazlana gainditutzat eman.

ESALDIAK BERRIDAZTEA

Berridatzi den esaldiak honako baldintza hauek bete behar ditu zuzentzat hartu ahal izateko:

- Esaldi bakarra atera behar da berridazketaren ondorioz.
- Eredutzat ematen den esaldiaren zentzua osorik jaso behar du.
- Eskaintzen den moldeari jarraituz osatua izan behar du, eta ez beste bide batetik eratua.
- Gramatikaren aldetik zuzena izan behar du, osorik.
- Komatxoak-edo jarri badira, horiek adierazten duten elementuen ordenak eta puntuazioak ere zuzenak izan behar dute.
- Ortografia aldetik, zuzena izan behar du.